

R. Trebitsch Euskalerrian 1913an

R. Trebitsch austriar antropologo bat izan zen herrialde berezi samarrak aztertzen ibili zena. Suberte txarra izan zuen bizitzan eta hilda gero ere ez zuen izan onarpen larregi. 1876-1918 urteen bitartean iraun zuen bere bizitzak. Bizirik zegola bere ikerketen emaitzak argitaratu zituen, batez ere ‘Österreichischer Akademie der Wissenschaften’ (Austriako Zientzien Akademia) erakundeak, eta beste aldizkari batzuk. 1956an Vienan bere omenez erakusketa bat antolatu zuen Leopold Schmidt jaunak, Austriako Etnografi Museoaren zuzendaria izan zenak urte horretan eta geroago.

Honek biografia labur bat prestatu zuen orrialde bateko luzeerakoa erakusketa horretarako. Antza danez ez zuen atera beste inon biografia hori. Hor gainera kontatzen R. Trebitschen bizitzaren ibilbidea. Batez ere dato bi eman zituen ezagutzera: bat ez zela hil gripe baten eraginez, egunkarietan jarri zuten bezala 1918an. Eta bestea, Vienako eraikuntza ezagun baten Schönborn jauregian, sarrera horman, bere aurpegiaren brontzezko erliebe bat zegola, eta nazitarrek desagerarazi zutela. Txatarra negozio batera eraman zutela esaten du oraingo biografia honek. Jakinik judutarra zela jatorriz eta arrazakeriaren kontra idatzi zituenak idatzita, nazitarren amorrua agirian geratzen da. Bere bidaiak herrialde desberdinetara ezagunak ziren, hango aldizkari zientifiko baten argitaratu zituelako bi daia horien emaitzak.

Oraintsuago beste biografia bat bilatu dut judutar erakunde batek atera duena eta internetan ere zabaldu dutena. Vienan jaio zen 1876ko urtarrilaren 28an. Bere gurasoak hauek izan ziren: Leopold Trebitsch, Vienan jaioa 1842ko maiatzaren 10an. Bertan hil zen 1906ko abenduaren 12an. Bere ama Malvine Singer zen, hau ere Vienan jaioa, 1846ko ekainaren 9an. Hiri horretan hil zen 1918ko agorrilaren 5an. Anai-orde bat izan zuen bere aita bigarren aldiz ezkondu zenean jaioa: Siegfried Trebitsch. Hau Suitzara joan eta han bizi eta hil zen. Idazle bezala ezaguna da bai Suitzian eta bai Austrian. Oroimen liburu bat idatzi zuen, 'Chronik eines Lebens' Suitzian bizi zela eta han argitaratu zuten 1951an. Antza ez zuen harreman gehiegirik bere anaiordearekin. Liburu horretan zerbait kontatzen du bere anaiari buruz 295-298 orrialdeetan. Jatorriz judutar familia batekoak ziren. Geroago emango duen pauso batengatik berak ere aitortuko du. 1894an 'matura' deitzen duten azterketa gainditu zuen. Hemengo errebalidaren antzekoa da eta izen horrek dioen bezala, heldutasun azterketa zen, gero unibertsitatera sartzeko. Sendagile ikasketak egin zituen, gurasoen asmoa jarraituz, eta 1900. urtean amaitu. Gero sendagile lanean hasi zen medizina orokorrean eta dermatologo bezala klinika txikietan. Baina Antropologiaren zaletasuna errebalidako urteetik zuen, eta 1904an Islandiara lehenengo bidaiari antolatatu zuen. Bere atxikimendu hori indartzeko giro egokia zuen. 1899an Vienako artxibo fonetikoak sortu zuten hango aditu batzuk. Eta erakunde horretako irakasle bat Ozeaniara joan eta hango herri basati batzuen bizitza, hizkuntza eta ohi-turak jaso zituen. Gainera argazki makina eta hizkuntza eta kontakizun batzuk grabatzeko, gramofono antzeko tresna bat eraman zuen. Horien denen berri izan zuen eta 1906an beste bidaiari bat antolatzen du, hango irakasle batek Pösch izenekoak egin zuenaren antzera.

Groenlandiara joaten da Stiasny batekin. Bidaiari hau urte honetako udako hilabeteetan egiten du. Hor ibili zen Kitaa hi-

rian bere egoitza nagusi bezala, eta hortik joan zen Egedesminde herrira lehenengo. Gero Upernivik herrira, eta Prävern herrira. Ibilaldi hori egin ondoren Vienara itzultzen da eta Schottenfeldgasse kalean bizitzen da. Bere sendagile lanean dihardu, horiek diralako burutu dituen ikasketak.

1907an beste bidaia bat antolatzen du. Oraingoan zelten hizkuntzaren esparrura joaten da. Galesera joan eta Llanflair, eta Anglesey hirietan ibiltzen da. Gero Llanover eta berriz Anglesey ikuskatzen ditu. Gero Irlandara igarotzen da, Cork-eko konterrirra. Han Castleyons hiria bisitatzen du, eta gero Kerry konterrian Ballyferriter hirian egoten da. Hurrengo urtean, 1908an, Frantziako zeltiar esparrua ezagutzen du. Ile-et-Villain departamentuko Saint-Malon egoten da. Hortik Saint-Brieuc hirira joaten da, Côtes-d'Armor departamentuan. Hortik Bretainako Guingamp hirira joaten da, hortik Morlaix-era, eta berriz Vienara itzultzen da. Oraingoan Josefgasse kalean bizi da eta berriz sendagile lanean dihardu. Baina berriz bere zaletasuna jarraituz, Eskoziara joaten da 1909an. Roy Bridge hirira doa aurrenengo eta gero Mann uhartera igarotzen da. Hortik berriz Galesera itzuliko da eta hurrengo hiriak ikuskatuko ditu Aberdare, Llandyssil eta Machynlleith. Berriz Vienara itzultzen da eta urte honetan luterotarren bataio hartzen du 1910 urrian. Biografia hau osatu duen judutar taldeak aitortzen du erlijioz aldatzen dela. Ez dago zalantzarik jaiotzez judutar jatorrizkoa zela. 1912an Marokkanergasse kalean bizi da.

Biografian ez dute esaten baina, seguruenik Antropologia erakundean lan egiten zuen bere maisu Pöch eta Haberlandt-en laguntzarekin. 1911an bere Etnografia ikasketak amaitzen ditu, tesia izango den lan batekin Vienako Unibertsitateko Geografia Institutoan. Izenburua hau da: 'Feellboote und Felle als Schiffsfahrzeuge'.

Bitartean Schuchardt irakaslearekin harremanetan jartzen da Euskalerrira bidaia bat prestatzeko. Honen aholkuz lehe-

nengo harremanak Telesforo de Aranzadi Bartzelonako unibertsitateko irakasleareki hasi zituen. Eta gero RIEB aldizkari-ko zuzendari zen Julio de Urquijo, Georges Lacombe eta Pierre Broussain izan zituen gidari Iparraldean. Hegoaldean R. M^a Azkue eta Julio de Urquijo. Musika grabaketak egiteko Iparraldean Gabriel Roby margolariak lagundu zion. Hegoaldean Gregorio de Mugica idazle eta injineruak.

Eta horrela 1913ko uda bukaeran etorriko da hona, bere 7 kiloko grabagailua aldean duela, euskaldunen material etnografikoa jasotzera eta bide batez grabaketak egitera. Antza denez, Julio de Urquijok eraman zuen bere kotxean toki batetik bestera. Batez ere galtzear zeuden herrietako ohiturak, lantresnak, hizkuntza eta argazkiak jasotzen zituen. Eta horiekin batera, herri medizina, siniskera eta legendak ere jasotzen zituzten. Metodo hauek eta bilketa Vienako Antropología irakasle batzuegandik ikasiak ziren. Gainera Islandian eta Groenlandian hango biztanleek erabiltzen zituzten itxasontzi txikiak aztertu eta jaso zituen Vienako Etnografia museorako.

Vienan XX gizaldiaren hasieran Etnografia Museo bat eraitzeko zereginean zebiltzan bere irakasle ziren Pöch eta Haberlandt. Trebitsch Etnografia bidean buru-belarri sartuta zegoen eta 1912an 15.000 koroa, bere dirutik luzatu zizkien bi irakasleei lan horretarako. Kultura ministeritzak ematen zien diru kopurua baino handiago zen.

Seguruenik bere lagun horiek Trebitsch-en eskuzabaltasuna ikusita izendapen ofizial bat eskatu zioten gobernuari. Eta 'Franz-Josef-Orden' zelakoaren zaldun izendatu zuen enperadoreak.

Beste ibilaldi batzuk ere egin zituen. Bizitzako lortzak jarraituz Errusiara joan zen, Balkanetara eta Italiara ere, eta 1913 eta 1915 bitartean etnografia lanari ekin zion Vienan.

Munduko 1. gerratean gudaren partaide izan zen tiroketa-tan parte hartu ez bazuen ere. Sendagile izanik, zeregin ho-

rretarako deitu zuten eta erresebako gudarien ospitale batera joan beharra izan zuen. 1915aren hasieran Karansebes-ko hospitalera, Temesvar hiriaren ondoan zegoen tokira. Caras-Severin probintzian, Errumanian zegoen ospitale honetara joan beharra gertatu zitzaion. Urtarrilaren 22tik apirilaren 7ra arte han egon zen mediku lanean. Gero 1916ik 1918ra erresebako gudarien ospitale baten mediku militarren lanean jardun zen, Vienako Simmering auzoan Hasenleitengasse kaleko ospitalean.

Inork ez daki nolako arrazoiak izan zituen bere burua hiltzeko 1918an Graz hiriko Judendorf auzoan zegoen osasun egoitza baten. Egoitza honetako lehio batetik bere burua bota eta hil zen. Garai haretako egunkariak gripe batek hil zuela kontatu zuten. Baina gertatua beste hau da. Osasun egoitza horretan hiru bat aste egin zituen gaixotasun baimen batekin. 1926an Haberlandt bere irakasle izan zenak, elkarrizketa ireki baten Eugenie Schwarzwald andreari esan zion: 'Zoritxarrez ez zen hil, mundu honetan bere burua hil zuen'. Bere anaiordeak, idatzi zuen oroimen liburuan hitz leunagoak erabiltzen ditu. Gerrako zaurituen artean ikusitako saminak depresio gogor bat sortu ziola, eta horregatik gaixotasun baimena eman eta azkeneko hiru asteetan Judendorf-eko osasun egoitzara bidali zutela. Baina berriz lehengo lanera itzuli behar zuelako beldurrarekin, lehioetik bere burua bota zuela, kontatzen du.

Bere anaiordeak bete zituen bere azken gogoak eta 100.000 koroa eramane zizkion Antropologia museoari. Bere babesle eta kolaboratzaileek bere aurpegiaren brontzezko erliebe bat jarri zuten Schönborn jauregian, burut zituen lan garrantzitsuen ezaugarri bezala. Baina jakina denez, 1938an Alemaniako naziek, austriar nazitarrek lagunduta, Austrian sartu ziren jabe bezala eta arrain txikia irentsi zuten. Anschluss izena eman zioten baina menperatze anker bat izan zen. Trebitsch konturatu zen 25 urte lehenago arrazismoa indartzen zijoala, eta hitz argiak idatzi zituen 'Urania' herritarrentzat Vienan ateratzen zuten as-

tekari baten. 1913 inguruan honelako eritziak idatzi zituen: ‘Trudikatzea, goi mailako eta behe mailako arrazak daudela ezin da inolaz ere ontzat eman zientziaren ikuspegitik. Konforme, gizaki batzuk euren gorpuzkeran urrutiago daude abere-engandik, eta beste batzuk hurbilago; baina itxurak ez du inolaz ere baimenik eta arrazoirik ematen batzuk arrazoidunak eta besteak gabeak direnik pentsatzeko. Ordua izango litzateke gure politikak zientzian oinarritutako ondorioak aterako bali-tuzke. Ai hartuko balukete Frantziako iraultzaren goiburua: “Askatasuna, berdintasuna eta anaitasuna”.

Orduan bai sortuko litzatekela etorkizunerako pakea, hortik jakintzaren oinarri berdinak jarrita herri guztientzat, nazioen arteko lehiaketa lasai bat gidatzeko, garapena eta aurre-rabidea ziurtatuta gera dadin. Horrela ez litzateke egongo nazio bat bera ere, beste bat bere menpean eta morrontzapean hartuko lukeenik ere’. Horrelako hitzak, jakina, ez datoz bat, handik laisterrera gertatu zitzaion gerraren esperientzia latza-rekin.

Badago beste berri misteriotsu bat bere bizitzan. Vianan ikasi zuen beste emakume antropologo baten biografia baten agertzen da. Trebitsch bezala judutarra zen, Odessan jaioa 1884an, eta nazitarren konzentramendu itxidura baten hil zu-tena 1942an. Ez dakigu ziur Izbican izan zen ala Sobibor-en. Bere izena Eugénie Goldstern. Honek Frantziako Saboya lu-rraldean ikerketa asko eta baliodunak burutu zituen. Bere bio-grafia baten dato hau agertzen da. ‘Le 15 octobre 1918, Eugé-nie apprend le décès du soldat Rudolf Trebitsch, “après de breves souffrances”. Ce chercheur et médecin était un homme à la sensibilité exacerbée, il avait vécu au plus près les ho-rreurs de la guerre moderne, assistant aux effets dévastateurs des armes nouvelles. Des groupes d’infirmiers avaient été pris sous le feu de la mitraille, des prisonniers et des blessés sau-vagement mutilés. Ces expériences laissent dans le corps et le psychisme de Rudolf Trebitsch des blessures qu’il ne peut ef-

facier, puis finissent par le plonger dans un état d'inquiétude chronique qui s'accompagne de violents maux de tête et d'un état dépressif qui le poussent à un ultime geste suicidaire. Eugénie en est bouleversée. La question reste posée de savoir si une relation qui aurait dépassé le cadre des affinités scientifiques a existé entre eux'. (Eugénie GOLDSTERN. *La Mémoire et l'oubli*, 2007, 43 eta 363 orrial.)

Judutar erakunde batek Tirol-eko judutar sendien historiak bildu ditu, eta honi esker ezagutzen ditugu beste berri hauek R. Trebitsch-en bizitzari eta lanei buruz. Oroimena jaso eta gordetzeko adibide egoki bat da hau. Eta Euskalerriaz arduratu zen beste atzerritar ikerlari baten berri ematen digu. Honek eta Erteuropako beste ikerlari mordo batek Euskalerrria ezagutu eta ezagutarazi zuten mundu zabalean.

Gero naziek munduko bigarren gerratean ikerlari horien datoeikin, jakin zuten bazegola Auñamendi inguruan herri berezi bat eta dokumentalen bat edo beste egin zuten. Eta batez ere jaietan Irun eta Donostiara etorri jaia ospatzeko. Nazien izpi eta Gestapoko polizia, janzkera eta guzti, hemengo kaleetan ibili ziren. Izpi pare batek engainatuta Jacob Gapp praile marianista Hendaiara eraman zuten. Eta 'topotik' jexi zenean Gestapoko policia bik harrapatu eta Berlinera eraman zuten. Han Roland Freisler epaile odolzale eta ankerrak gilotinara bialdu zuen. Eta beste batzuen artean, Himmler berak ere Donostiara bisita egin zuen, baten behintzat. Trebitsch-ek grabatu zituen testo guztiak disko bitan argitaratu zituen Austriako Zientzien Akademiak 2003an. Lan hau austriar batzuk osatu zuten, euskaldun batek lagunduta, baina protokoloetan agertzen diren testo batzuk oker jasota daude argitalpen honetan. Grabaketa aurretik idatzi minutu biko zatitxo bat, eta grabagailuaren aurrean irakurtzen zuten lekukoek. Protokolo horiek denak eta transkribaketa fonetikoak ere 1990-1996 urteetan euskalkiz euskalki argitaratuta daude Deustuko unibertsitateko 'Mundaiz' eta 'Enseiukarrean' aldizkarietan, eta 'Anuario

de Eusko Foklore' aldizkarian. Baina Vienako argitaratzaileei ahaztu zitzaien nonbait hori dena eta disko hauen sarreran honelako ohar bat jarri zuten 56. orrialdean: 'A partial transcript of protocols has been published by Etxebarria (1990, 1992)'. Disko hauek 7 urte beranduago argitaratuta daude. Gainera musika grabaketak zehaztasunik gabe atera zituzten disko horietan.

Askoz argiago eta zehatzago atera ditu Inaxio LOPEZ DE ARANA jaunak 'Sancho el Sabio' eta 'Lapurdum' aldizkarietan. Hauen berri liburu honetan azaltzen da: J. M. ETXEBARRIA L., *Euskarazko grabaketak 1913-1917 Grabaciones en euskara*, Erroteta, 2008. Diskoetan ez dute argitaratu bakoitzaren protokolo osoa, eta testuaren laburpen bat ingelesez bakarrik. Segurasko nik urte batzuk lehenago protokolak, testoak, eta itzulpenak osorik argitartu nituelako. Testoetan ere ez zuten jarri dena zuzen. Esaterako 2230. diskoan honelako zati bat jarri zuten: '...torteroa tupie zintzilika dula; gazte bat alprajatak zimizta bezelako zintaz josi lepoan, pañuelo gorri bat artu eta txilibitua joaz aurretik, Bienakoaren atzetik, upa mutillak! esanaz. Andra bat lotu, irtetzekm (sic) bideterdia:...' (The collections of Rudolf Trebitsch. Basque Recording 1913, 46. orrialdea). Protokolan idatzita dagona hau da: '...alprajatak zinta gorriz lotuta, pañuelo gorri bat lepoan eta txilibitua joaz aurretik badijoazte jupa! mutillak mendian gora. Andra bat ateratzen da txistu soñura esanaz: Amoñatue! Basa-gizonak bazi-joazten...' Eta nik testo hau jasotzen dut protokoloen fotokopia batetik. UNESCO erakundearen laguntza jaso duen argitalpen honetan esaten dute parreengatik ez dela ondo entzuten. Horrelako grabaketa baten aurrean bide bi daude: edo testo fonetikoki traskribatu eta horretarako alfabeo fonetiko erabiltzen da; edo protokoloan idatzita dagona, dagon dagonean kopiatu.

Disko hauen argitalpenean ez dute erabiltzen inolako alfabeto fonetikorik. Nik kasetean entzun nituen lehenengoz

Mundaiz aldizkarian 1993an argitaratzeko, eta nahiko entzuten da transkribaketa fonetiko bat egiteko. Geroago diskotik entzun nituen eta orduko bera entzuten da. Beste esaldi labur batzuk ere oker jasota daude sarrera honetan. Uste dut Trebitsch eta bere lanak errespeto gehiago eta hori baino erabile-
ra zientifiko egokiagoa merezi dutela XXI gizaldian, bai he-
men eta bai Austrian. Gainera euakal grabaketekin horrela
jokatu baldin badute, zalantzak sortzen dira argitaratu dituzten
beste grabaketen aurrean. Hauek dira: ‘Series 3: Papua New
Guinea (1904-1909): The Collections of Rudolf Pöch, Wilhelm
Schmidt, and Joseph Winthuls. Series 5/1: The Collections of
R. Trebitsch: Recordings from Greenland (Kalaalit Nunaat)
(1906). Series 5/2: The Collections of R. Trebitsch: Celtic Re-
cordings: Ireland, Walles, Brittany, Isle of Man, and Scotland
(1907-09)..Series 7: Rudolf Pöch’s Kalahari Recordings (1908)’.

J. M. Etxebarria L.